

2010eko jarduera memoria

**Topagunea Euskara Elkarten Federazioaren 2010
urteko jardueraren memoria**



TOPAGUNEA

euskara elkarten
federazioa

Arlozabal, 8 bis Znk. 1.C
Abadiño. Bizkaia. 48220

94 621 57 80 - 94 681 47 32
www.topagunea.org




Aurkibidea

• Sarrera	04
• Euskaldunon Elkarten Mugimendua	06
• Kongresua	08
• Bazkide zerrenda	10
• Federazioa	12
• Sustapena	14
• Komunikazioa	16
• Haur eta gazteak	18
• Kulturgintza	20
• Hedabideak	22
• Mintzapraktikak	24
• Sentsibilizazioa	26
• Zerbitzuak	28
• Babesle eta laguntzaileak	30

Sarrera

*Euskara,
Euskara
Euskara ez du
Buruak iraunerazi,
Bihotzak aldiz, bakarrik,
Ezin du gehiago
Gehiago
Gehiago
J.A. Artze*



Ezinhobeto jasotzen du Artzeren poemak euskara elkarten mugimenduaren izateko arrazoia. Euskaraz bizi nahi duen komunitateak bihotza oso-osoan jarri du mendetan bere izate, bere identitate sentitu duen hizkuntzari eusteko. Hortik abiatu zen mugimendua duela 30 urte, nahi batetik, iraun baino bizi egin nahi zuen hizkuntza komunitate baten gogoak eraginda. Gogoak bultzatuta ekin genion hizkuntz dinamikei buruz ikasteari eta jakin genuen gurean gertatzen ari zen atzerakadak bazuela arrazoirik, ez zela hiztunon axolagabekeriak eragindako galera soilik. Hizkuntzak hil ala bizi irauli daitekeen prozesua izan daitekeela irakurri genuen, eta burua eta bihotza ondo jantzita abiatu zuten hainbat lagunek euskara elkarten mugimendua.


Urte hauetan guztietan bihotzak gogor iraun du, eman zezakeena baino gehiago emanez askotan, Topagunea osatzen duten 95 elkarteak horren lekuko. Buruak ordea, tarte gutxiago izan du, denbora gutxiago eskaini diogu eta poemak dioen bezala bihotzak bakarrik ezin du.

Horixe izan da 2010eko kongresua. Oraindik bihotz oso emateko beharra sentitzen duen komunitateak buruari ere erreparatzeko tarte. Eguneroko lanei utzi gabe 30 urtetan egin dugunaren erreposoa eginez hutsuneak identifikatzeko urtea, mugimenduaren oinarriaparrak berrikusi eta elikatze bidea, mugimenduko kideak mahai baten bueltan jarrita gogoeta egiteko une eta gunea, izan garenaz eta izan nahi dugunaz hausnartu eta horretarako bidezidor berriak planteatzea. Eta batez ere, elkarlanerako urtea. Helburu bera gogoan, guztion ekarpenekin osatutako oinarri sendoak jarri dizkiogu XXI. mendeari aurrez aurre begiratu nahi dion mugimenduari.

Etorkizunak esango du mundu globalean euskaraz bizitzen asmatuko dugun edo ez. Oinarriak jarri ditugu, bidea egiteko dago, hel diezaiogun elkarrekin.



EUSKALDUNON
ELKARTEEN
BILGUNEA



Federazioa

Euskaldunon Elkarten Mugimendua eta Topagunea

Topaguneko Zuzendaritza Batzordeak 2008an egindako gogoeta izan da Kongresua abiarazteko oinarria eta, beraz, urteko jarduerarako iparra eginkizun hauek osatu dute.

Euskara Elkarten Mugimenduaren eginkizuna

Euskararen normalizazioa helburutzat duen herri ekimena da euskara elkarten mugimendua. Herri edo eskualde mailan erakundetuta, euskal hizkuntza komunitatea trinkotuz eta antolatuz euskararen erabilera areagotzeko lan egiten du, erabilera guneak sortuz eta herritarren kontzientzian zein motibazioetan eraginez.

Topagunea Euskara Elkarten Federazioaren eginkizuna

Euskara elkarte bakoitzaren eta guztien jarduera indartuz eta euskara elkarten mugimenduaren ordezkartza eta eragiletza funtzioa izanik, euskararen normalkuntza du xede Topaguneak, erabilera eta motibazioan eragiteko egitasmoen bidez.




Euskara Elkarten Mugimenduaren ezaugarriak

1. Gizarte mugimendu parte-hartzailea, herritik sortua eta elikatua.
2. Jarduera guztia egin eta eragin ardatzetan
3. Aniztasuna
4. Autonomia
5. Mugimendu zabal eta integratzailea
6. Euskaldunon bilgune, hizkuntza komunitatearen erreferentzia; euskaraz bizitzeko nahiak, beharrak eta gogoak batzera bultzatutako euskaldunon topagune
7. Euskaraz bizitzeko gune eta funtzioak irabaztea helburu.
8. Lan eraikitzailea eta elkarlanean oinarritua.
9. Hurbiltasuna oinarri
10. Euskara euskal hizkuntza komunitatearen identitatearen ardatz
11. Lan boluntario eta profesionala uztartzea

Topagunea Federazioaren ezaugarriak

1. Bazkideen (Euskara Elkarten Mugimenduaren) ezaugarriak federazioak bere egiten ditu
2. Federazioa, bigarren mailako erakundea da: elkarteekin eta norbanakoekin egiten du lan
3. Tokian tokiko errealitatean oinarrituta, orokortasunean pentsatzen du
4. Euskal Herriko lurralde guztietara hedatu eta garatzeko bokazioa
5. Erakunde bizia
6. Hausnarketarako gune, iritzi sortzaile
7. Mugimenduaren oinarrien ezagutza eta transmisioa



XXI. Mendeko Euskaldunon Elkarten Kongresua

<http://kongresua.topagunea.org>

Oinarriparak berrikusten

2010eko urtarrilaren 23an ekin zitzaion Euskaldunon Elkarten Mugimenduaren Kongresuari. Durangoko jardunaldietan euskaldunon elkarteetako kideek gogoetarako premia eta mugimenduaren gaineko biziberritzea lantzeko gogo nabarmendu zuten. Eguneko ondorioen irakurketak martxan jarri zuen Kongresua.

Bi fasetan irudikatu da Kongresua: lehen fasean (2011ko otsailera arte garatutakoan) pentsamendua izan da ardatza, bigarrean (2012aren hasierara arte luzatuko dena) mugimenduaren antolakuntza eta finantzazioa aztertuko dira.

2010ean garatutako faseari hiru helburu jarri zitzaizkion:

1. Euskaldunon elkarten oinarriparak definitzea
2. Topagunearen lidergoa birdefinitzea
3. Etorkizuneko elikaduraren artikulazioa diseinatzea, motibazioaren eta ezagutzaren ardatzak lantzea

Kongresuaren Batzordeak

Bi batzordek funtzionatu dute 2010 urtean zehar Kongresuaren baitan.

Kongresuko Batzorde Eragilearen funtzioa gogoeta prozesu osoaren jarraipena egitea da. Batzordearen osaera ondokoa izan da: Iban Arantzabal, Karmen Irizar, Iker Martinez de Lagos, Jasone Mendizabal, Joxemari Muxika, Koldo Tapia eta Oskar Zapata.

Batzorde Txikia izan da Kongresuaren lehen faserako ponentzia sortu duena. Idazkaritza eta batzordearen dinamizazioa HUHEZI fakultutateko Sorguneak lantaldeko kideek egin dute. Batzordeko partaideak ondokoak izan dira: Julen Arexolaleiba, Iñaki Arruti, Josu Aztiria, Gorka Barruetabeña, Nekane Goikoetxea, Elena Herrarte, Karmen Irizar, Imanol Larrañaga, Iker Martinez de Lagos, Iñaki Martinez de Luna, Jasone Mendizabal, Imanol Miner, Rosa Ramos, Jon Sarasua, Xamar eta Iñaki Urruzola.

Kongresua kopurutan

Zuzendaritza Batzordearen erabakiz, prozesu parte hartzailea irudikatu da Kongresuaren lehen faserako, parte hartzeko foro ezberdinak eskaini dituena. Urtean zehar izandako saio eta bilgune ezberdinetan euskara elkarten %75ek parte hartu dute, modu batean edo bestean. Topaguneak azken urteetan egindako gogoeta zabalena eta parte hartzaileena izan da.


Durangoko jardunaldietan 100 lagunek hasitako bideari Batzorde Txikiaren lau hilabeteko lan trinkoak eman dio jarraipena. Urritik aurrera, berriz, lehen kontraste taldea antolatu da eta euskara elkarteetako 55 kidek parte hartu dute (tartean, webgunean egin dituzte lehen ekarpenak, 66 guztira, eta gehienek parte hartu dute Eibarren egindako mintegi batean). Ondorengo faseetan 100 lagunek parte hartu dute 13 eskualde aurkezpenetan eta 70 lagunek txostenaren gainean eztabaidatzeko antolatutako lau lurralde mintegietan (mintegien ondoren bederatzi ekarpen idatzi jaso dira, horietatik bi, emendakinak). Azkenik, 204 lagun elkartu gara Bilbon 2011ko otsailaren 26an egindako bilkura nagusian.

Kongresua ondoriotan


Parte hartze eta onarpen zabalarekin bukatu da kongresuaren lehen fasea. Etorkizunerako Euskaldunon Elkarten Mugimenduarentzako oinarriparrak zehazten asmatu da eta mugimendua fase berri batean sartzearen aldeko apustua nagusitu da. Horretarako, baina, bide luzea dago egiteko eta hurrengo urteetarako lehentasunezko politikak definitu dira:

1. Mugimenduaren antolakuntza eta finantzazioaz hausnartzea
2. Nazio mailako mugimendu izaeran sakontzea
3. Pentsamendu eta jakintzaren ardatza antolatzea
4. Alor ezberdinetan proiektu pilotuak martxan jartzea
5. Milintateen artikulazioa eta elkarten trinkotze-mekanismoak aktibatzea
6. Transmisio eta elikadura sistema martxan jartzea

Lan ugari baina ilusionagarriak mugimenduarentzat. Hauek markatuko dituzte Topagunearen hurrengo urteetako lan-ildoak.




Topagunearen bazkideak 2010an



1. Abarrak Euskara Elkarte, Arrigorriaga; www.arrigorriagaeuskaraz.com
2. Aizpea Euskara Taldea, Irurtzun
3. Alozo Euskara Elkarte, Zeanuri
4. Ametza, Jauntsarats; www.esanerran.com
5. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED), Arrasate; www.aedelkartea.com
6. Arrekikili Euskara Elkarte, Larrabetzu; www.arrekikili.org
7. Asapala Euskara Elkarte, Mahatserria-Bilbo; www.asapala.org
8. Austarri-Korta Kultur Elkarte, Zeberio
9. Axola Kultur Elkarte, Abanto
- 10.; Bagera Euskaltzaleon Elkarte, Donostia; www.bagera.net
11. Bai Esan Santurtzin Euskaraz, Santurtzi
12. Baleike Kultur Elkarte, Zumaia; www.baleike.com
13. Basalarrina Kultura Elkarte, Laudio
14. Batana Batu Kultur Elkarte, Mahatserria-Bilbo
15. Belaiki Euskara Elkarte, Baranbio (Amurrio);
16. Berbaizu Euskara Elkarte, Deustua; www.berbaizu.org
17. Berbalamiñe Euskara Elkarte, Leioa
18. Berbaro Elkarte, Durango; www.berbaro.com
19. Berbetan Euskara Elkarte, Balmaseda
20. Berbots Erandion Euskaraz, Erandio; www.berbots.org
21. Bidabarri, Murgia
22. Bierrik Elkarte, Sakana; www.guaixe.net
23. Bizarra Lepoan Euskara Elkarte, Getxo; www.blogari.net/bl
24. Boluntzarreta Euskara Bultzatzeko Elkarte, Uribe Kosta
25. Danbolin-Zulo Kultur Elkarte, Zestoa
26. DHK-Durangaldeko Herri Komunikabideak, Durango; www.anboto.org
27. Dindaia Fundazioa, Iruñea; www.dindaia.com
28. Dobera Euskara Elkarte, Hernani; www.dobera.com
29. Donostiako Komunikabideak, Donostia; www.gaztezulo.com
30. Egizu Euskaldunon Elkarte, Getxo; www.blogari.net/egizu
31. Eixu! Zaldibarko Euskara Taldea, Zaldibar
32. Ekin Emakumeak Elkarte, Arrasate
33. Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte, Elgoibar; www.elgoibarkoizarra.com
34. ...Eta Kitto! Euskara Elkarte, Eibar; www.etakitto.com
35. Euskal Birusa Elkarte Kulturala, Ermua; www.euskalbirusa.org
36. Euskaldunon Biltoki, Txantrea-Iruñea; www.ebiltoki.org
37. Euskara Añana Mingainean, Añana kuadrila
38. Euskarabila Kultur Taldea, Basauri; www.euskarabila.org
39. Euskaraz Bermeon Eusber; Bermeo
40. Galtzaundi Elkarte, Tolosa; www.galtzaundi.com
41. Ganoraz Arratiako Euskara Elkarte, Igorre
42. Garean Euskara Elkarte, Lizarra
43. Geu Gasteiz Euskalduna Elkarte, Gasteiz; www.geugasteiz.com
44. Goibeko Kultur Elkarte, Elgeta
45. Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Debagoiena; www.goiena.com



46. Goierriko Euskal Eskola, Lazkao
47. Gure Txeru Kirol eta Kultur Elkartea, Getaria
48. Gurien Bai Euskera Elkartea, Iurreta
49. Gutxisolo elkartea, Trebiñu
50. Hitzaro Elkartea, Ordizia; www.blogak.com/hitzaro
- 51.;Hodoibaltza 49. Hodoibaltza Euskara Elkartea, Gordexola
52. Hogeitalau Euskara Elkartea, Aiara
53. Illati Euskara Elkartea, Idiazabal
54. Irun Iruten, Irun; www.iruniruten.com
55. Jardun Euskara Elkartea, Bergara; www.jardun.net
56. Karenka Komunikazio Elkartea, Mutriku
57. Karkara Taldea Kultur Elkartea, Orio; www.karkara.com
58. Karrika Euskara Elkartea, Agoitz
59. Karrikaluze Ikartea, Atarrabia; www.karrikaluze.org
60. Karrikiri Iruñeko Euskaldunon Elkartea, Iruñea; www.karrikiri.org
61. Kima Euskara Elkartea, Altsasu
62. Lagatzu Euskara Alkartea, Zamudio; www.lagatzu.org
63. Lau Haizetara Elkartea, Errenteria; www.lauhaizetara.net
64. Lizardi Mintza Elkartea, Bilbo; www.lizardimt.com
65. Loramendi Elkartea, Aretxabaleta
66. Mailope Kultur Elkartea, Arribe-Araitz
67. Manuel Larramendi Bazkuna, Beterri-Aiztondo; www.aiurri.com
68. Maxizatzen Euskara Elkartea, Azkoitia
69. Nañon Euskal Kultur Elkartea, Zornotza
70. Noaua! Kultur Elkartea, Usurbil; www.noaua.com
71. Orraitio Euskara Elkartea, Mallabia
72. Pil-Pilean Kultur Elkartea, Soraluze; www.plaentxia.com
73. Sasiburu elkartea, Barakaldo; www.euskalnet.net/sasiburu
74. Totoan Txorierriko Euskara Elkartea, Txorierri; www.aikor.com
75. Trolebu Kultura Elkartea, Aulesti;
76. Ttakun Kultur Elkartea, Lasarte-Oria; www.ttakun.com
77. Ttiki-Ttaka elkartea, Lapuebla de Labarka
78. Ttipi-Ttapa fundazioa, Etxalar; www.ttipi.net
79. Txantxangorrixak Aisialdi Taldea, Mutriku
80. Txatxilipurdi, Arrasate; www.txatxilipurdi.com
81. Tximintx Euskara Elkartea, Derio; www.blogari.net/tximintx
82. Txirritola euskara elkartea, Aramaio
83. Txokolo, Mungia
84. Uztartzen Kultur Elkartea, Azpeitia; www.uztarria.com
85. Xaloe telebista, Baztan
86. Xorroxin elkartea, Baztan; www.xorroxin.com
87. Zaldiko Maldiko Iruñea; zaldikomaldiko.blogspot.com
88. Zenbat Gara Kultur Elkartea, Bilbo; www.zenbatgara.org
89. Zertu Kultur Elkartea, Arratia
90. Zingi-Zango, Legazpi; www.zingizango.com
91. Zintzo Mintzo, Urretxu-Zumarraga; www.otamotz.com
92. Zorriketan Kultur Elkartea, Lezama; www.zorriketan.org
93. Zorroka Euskara Taldea, Berrioazar
94. Zuhatza Euskara Elkartea, Deba



Egitura

Batzar Nagusia

Apirilaren 17an egin du Urteko Batzar Nagusia federazioak, Iurretan.

Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Batzordeak 11 batzar egin ditu 2010 urtean. Nagusiki Euskaldunon Elkartearen Mugimenduaren Kongresua izan du aztergai Zuzendaritza Batzordeak urtean zehar.

Zuzendaritzak 2009an Kongresua abiaraztea erabaki zuen (mugimendu osoaren gogoeta parte hartzailea egitearen baldintzarekin) eta gai nagusi hori izan du dinamikaren oinarrian.

Ondoko lagunek osatu dute 2010eko Batzar Nagusitik aurrera Zuzendaritza Batzordea:

Lehendakaria: Karmen Irizar (Maxixatzen)

Lehendakariordeak:

Elena Laka (...Eta Kitto!)

Joseba Llano (Ttiki-Ttaka)

Karlos Gonzalez (Berbaizu)

Imanol Larrañaga (Elgoibarko Izarra)

Lehior Elorriaga (Berbaro)

Amaia Alberdi (langile ordezkaria)

Idazkaria: Iker Martinez de Lagos (Asapala)

Diruzaina: Aitor Izagirre (Txatxilipurdi)



Lantaldea


2010 urtean ondoko lagunak izan dira lan taldeko kideak:

Jasone Mendizabal; Zuzendaria
 Maider Urrutia: Kudeatzailea
 ker Martinez de Lagos; Idazkaria, komunikazioa
 Sonia Perez Anguera: Sustapena, Haur eta gazte Saila
 Manuel Moreno; Kultura Saila, Gipuzkoa eta Arabako sustapena
 Oskar Zapata; Mintzapraktika Saila, Nafarroako sustapena
 Aritza Escandon; K2ako zuzendaria
 Joxe Rojas; Hedabide Saila, prentsa
 Mikel Ozaita: Sentiberatze Saila, Bizkaiko sustapena
 Galder Unzalu: Sentiberatze Saila, Bizkaiko sustapena
 Maider Elkorro: Auzoko egitasmoa
 Aitziber Urizar; Administrazioa
 Goizane Jausoro; Administrazioa
 Amaia Etxeberria; Administrazioa
 Aiora Azagirre; Gazte programen
 Alba Fatuarte: Kongresuko komunikultur eta gazte egitasmoaka
 Maitane Urrutikoetxea: K2a komunikazio arduraduna
 Oihane Garate; Kultur egitasmoak
 Amaia Alberdi; Kultur egitasmoak
 Eneko Anduaga; Mintzakideko teknikzioa, kultur egitasmoak
 Itsaso Lekuona: Kultur eta gazte egitasmoak
 Elen Kortaxarena: Kultur eta gazte egitasmoak
 Larraitz Gaztañazatorre: administrazioa; kultur egitasmoak
 Oihana Beloki: Nafarroako 3blai egitasmoa
 Iker Moreno: Nafarroako 3 blai egitasmoa
 Nerea Beloki: Garbitzailea

3blai egitasmoan begiraleak: Josune Huarte, Mikel Lezertua, Itziar Dorai, Andoni Sanchez, Narila Mondragon, Miren Dorai, Amaia Larrayoz, Jaione Maya, Oihane Ojeta, Janire Beriain, Belai Askunze, Ibai Garjon, Itsaso Olariz, Lorea Jimenez, June Garzia, Irantzu Agerri.

Mintzapraktika egitasmoen dinamizatzaileak: Unai Viana (Arabako Gorbeialdea), Mertxe Zumeaga (Asteasu), Estebe Apezetxe eta Oianko Garde (Bortzirriak, Malerreka eta Baztan)

Auzoko egitasmoan dinamizatzaileak: Berta Etxezarra eta Natalia Lafuente (Agurain), Arantxa Arrillaga (Orio), Aner Arregi (Bergara), Elena Leonardo (Berriatua), Idoia Collados (Zeanuri)



Arabako euskaldunon elkarguneen topaketa

Azaroko bi asteburu erabili dira Arabako euskaldunon elkarguneen arteko gogoeta bideratzeko. Bi larunbatetan lau saio nagusi egin dira mintzapraktika egitasmoak, kultur jarduerak, haur eta gaztetxoek aisialdiko eskaintza eta euskaldunon elkarteengatik inguruan hausnarketa egiteko. Hitzaldiez gain, esperientzia trukeko tartea ere egon da Gasteizen egindako saio horietan. Arabako euskalgintzako 60 bat lagunek parte hartu dute topaketetan (euskara elkarteetako kideez gain, kultur eragileak, hezkuntza arlokoak, administrazio teknikiariak eta beste) eta aukera ona izan da Arabako euskaldunen elkarteengatik etorkizunaz hitz egiteko.

Topaketen bideoak: <http://ttiki.com/26478>

Euskara aniztasunean

Auzoko egitasmoaren esperientziatik abiatuta, aniztasun testuinguru batean hizkuntzak izan beharreko tokiari buruzko hausnarketa bultzatu nahi izan da 2011ko urtarrilean Durangon egindako jardunaldietan. Gaiak interesa pizten duela nabarmena da, 80 lagunek parte hartu baitute saioan, batzuk euskara elkartetakoak eta beste batzuk etorkinekin lan egiten dutenak. Jardunaldiak gaiaren bueltako iritzi ezberdinak jasotzeko balio izan du eta baita esperientzia batzuen aurkezpenak egiteko.

<http://www.topagunea.org/sentiberatzea/euskara-aniztasunean-jardunaldiaren-kronika>

Prestakuntza plana

Federazioaren prestakuntza plana osatu da 2010ean. Prestakuntza beharrak identifikatzeko prozesuaren gidaritza aholkularitza enpresa batek egin du (IMH institutuko Incess aholkularitzak) eta Topaguneko lankideek zein bazkideek parte hartu dute prozesuan. Gogoeta sakona egin da, orokorrean eta lan-arloka, eta beharrak identifikatuta gelditu dira hurrengo urteetarako plana osatzeko. Prestakuntza planaren aurkezpena ere egin zaie bazkideei.

Formazio saio zehatzei dagokionez, 2010 urtean datu babeserako legearen inguruan egindakoak aipatu behar dira. Bazkideentzat interes orokorrekoa den aurkezpenaz gain, bi gairen inguruko saio berezituak egin dira: haur eta gazteen aisialdiko jarduerak dituzten elkarteengatik zuzendutakoak eta hedabideen arlokoak.



Lurraldeka

Araba

Arabako euskara elkarteekin egindako lana handia izan da urte osoan zehar. Emaizarik agerikoena aurretik aipatutako jardunaldietan gauzatu zen, esperientzia trukerako eta elkarteek egiten duten lanaren gaineko gogoetarako balio izan duen saioa.



Bizkaia

Aurreko urteetan abiatutako eskualde dinamikak jarraipena izan du zenbait gunetan. Hala ere, trantsizio urtea izan da Bizkaian, teknikariaren aldatetak eraginda.

Nafarroa


Aurreko urte gatazkatsuen jarraipena izan da 2010 urtea Nafarroan. Eragile ezberdinekin hartu-eman handia izan da: gobernuarekin, alderdi politikoekin eta bereziki, euskalgintzarekin. Euskalgintzako erakundeekin egondako harremanaren ondorio nagusia maiatzaren 15ean egindako "Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea" manifestazio jendetsua izan da.

Gipuzkoa

Hedabideen arloan Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako gogoetan izan den parte hartzea aipatu beharra dago bereziki. Topaguneak zenbait bazkiderekin batera parte hartze aktiboa izan du mahai horretan.



Komunikazioa



Webgunea euskara elkarten eta Topagunearen inguruko informazioa zabaltzeko baliatzen da. 2010 urtean 183 sarrera berri izan ditu webguneak eta 21.000 bisitatik gora jaso ditu; sare sozialak baliatu dira zabalkunde handiagoa emateko. Webgunearekin batera, sortutako azpiegitura erabiltzen da nahi duten euskara elkartei plataforma erabilgarri bat eskaintzeko (aurten elkarte batek gehiago baliatu du webgunea sortzeko eta beste batek buletin elektronikoa propioa antolatzeko).

Barne buletin elektronikoa da Topaguneak bazkideekin duen komunikazio tresna egonkorrena. Hamabosteroko bidalketak izan ditu buletinak (2010ean 22 buletin bidali zaie 250 lagunei). Federazioak berak sortutako informazioaz gain, euskara elkarten ekimen interesgarriak eta sarean aurkitutako ikerketa eta informazio baliagarriak ere zabaltzen dira sareko Topaberriren bidez.

Topaberri, papereko bertsioan guztiz eraberritu da 2010 urtean. Bere sorreratik izan dituen formatu ezberdinetan, Topaberrik funtzio informatiboa bete izan du orain arte. Buletin elektronikoa sorrerak, baina, papereko edizioaren formatuaz eta edukiaz gogoeta egitea ekarri du eta aldaketa nagusi bat ekarri du: informazio buletina izatetik gogoeta buletina izatera pasa da Topaberri. 2010ean landu diren zenbaki biek aldaketa horren adibide onak izan dira, biak izan baitira Kongresuaren gainekoak eta iritzi bilketa egiteko balio izan baitute. Diseinu berrituz gain, edukiz berritua agertu da Topaberri.



Topakide txartela

Hamazazpi euskara elkartek baliatzen dute Topakide txartela.

Erakunde harremanak

Topagunearen erakunde harremanetarako planak dituen helburuak euskara elkarten mugimenduaren zein federazioaren jarduera indartzea eta hizkuntzaren normalkuntzaren inguruan federazioak duen hizkuntza komunitatean oinarritutako ikuspegia gizarteratzea dira. Horretarako urtean zehar hainbat erakunderekin izan da harremana.

Partaidetzak


Hainbat erakundetan partaidetza du Topaguneak. Tokiko elkarteak, Kontseilua eta Soziolinguistika Klusterrean parte hartzen du federazioak, lehenengo bietako Zuzendaritza Batzordeko kide modura. Era berean, Puntueus elkarteko kide ere bada Topagunea.



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**



Gazte Kultur Zirkuituak

Gazte Kultur Zirkuituak egitasmoaren baitan gaztetxoei zuzendutako ikastaro eta tailer ludikoak eskaintzen dira. Tailer laburrak eta aisialdiari lotuak izaten dira eta euskara elkarrekin gain, hainbat ikastetxek eta udalek ere parte hartzen duten eskaintza honetan. Azken urteotako dinamika berdintsua mantendu du egitasmoak eta guztira eskaini den tailer kopurua nabarmen hazi ez bada ere, aurreko urtean baino euskara elkarte gehiagok parte hartu du 2010 urtean.

Kameratoia

Kameratoia Euskal Herriko Ikus-Entzunezkoen Rallyaren seigarren edizioa aldaketekin heldu da. Izan ere, 2010 urteko edizioak hainbat aldaketa izan ditu antolakuntzari dagokionez. Rallya egun batean gauzatetik, aste beteko iraupena izatera pasa da. Horrela, asteburu batean hasi eta hurrengo asteburuan banatu dira sariak (tartean bost egunetan landu ahal izan direlarik lanak). Seigarren edizio hau Ermuan burutu da. Formatu aldaketak 2009an egondako parte hartzea ezin berdintzea ekarri du, baina hala ere, parte hartze zabala izan da eta bereziki aipatu da lanek izandako kalitatea. Guztira 28 taldek eman dute izena eta 15 lan aurkeztu dira "Muga Muga" gaiari erantzunez.

<http://www.kameratoia.com/>



Benito Ansola beka

Kameratoia lehiaketa eta Laburbira zirkuituarekin hasitako bideari jarraituz, Topaguneak beste urrats bat eman du ikus-entzunezkoen sorkuntza bultzatzen. Horrela, Lekeitioko Bideo eta Zine Jaialdiarekin elkarlanean lehen Benito Ansola beka sortu da aurten. Ikus-entzunezko laburrak sortzea da lehiaketaren helburua eta 4.000 euroko bi beka banatu dira aurkeztutako bi proiektu onenak gauzatu ahal izateko. Harrera oso ona izan du eta 17 egitasmo aurkeztu dira, lehen urtea izanik oso balorazio ona egin delarik.



Udalekuak

Udalekuetan parte hartzen duten elkarten arteko harremana batzorde batean antolatzen da egun. Azken urteotako ekarpen interesgarrietako batek eskuragarri egoten jarraitzen du, Topaguneko webgunean material baliagarria baitago udalekuak antolatu nahi dituen edozein elkarterentzat. Udalekuen kudeaketan esperientzia duten hainbat elkarte egindako ekarpenekin osatuta dago dokumentazioa.


<http://www.topagunea.org/dokumentazioa/>

Webgunean leku berezia egin zaio era berean, udalekuen matrikulazio kanpainari. Euskara elkarteek egiten duten eskaintza osoa biltzen saiatu da Topagunea eta

3blai egitasmoa

Nafarroako hainbat Euskara Elkarterekin adostuta, 3 Blai izeneko egitasmoa kudeatu du Topaguneak sei herritan. Herri hauetako udalek ere parte hartzen dute egitasmoan.

Guztira ehun gaztek parte hartzen dute aisialdi eskaintza jarraitua oinarri duen egitasmoan.



Kulturgintza

Kultur Errota

Kultur Errota martxan jarri zenetik 12 edizio joan dira 2010 urtekoarekin. Formatu txikiko kultur emanaldiak antolatzen urte asko joan dira beraz.

Urtez urte hazten joan den zirkuitua izan da Kultur Errota 2008rarte eta azken bi urteetan, faktore ezberdinek eraginda (tartean egoera ekonomikoa aipatu beharko litzateke) azken bi urteetan emanaldi kopuruak beheranzko joera hartu du. 2010 urtean 40 euskara elkartek antolatuta 152 kultur emanaldi burutu dira Kultur Errotaren baitan. Guztira 6.500 ikus-entzuletik gora izan dira emanaldiotan. Balorazioei dagokienez, elkarte antolatzaileen %78ak ondo, oso ondo edo bikain baloratu ditu emanaldiok eta kulturgileen %75ak balorazio oso ona egin du (gainontzekoek ona).

Kultur Errotak formatu txikiko emanaldiak bestela emanaldiak nekez egiten diren herri eta eskualdetara heltzeko aukera ematen du eta, era berean, kulturgileei bere lana erakusteko aukera paregabea eskaintzen die. Asko dira azken urteotan beraien emanaldiak jendaurrean aurkeztu nahian Topagunera hurbildu diren kulturgileak.

Laburbira, Film Laburren Zirkuitua

Laburbira izena hartu du film laburren zirkuituak 2010ean, bere zazpigarren edizioan. Aurreko urtean hartutako bideari jarraituz, aurreko urtean sortu diren zenbait ikus-entzunezkorekin batera, kameratoia lehiaketako zenbait lan ere aurkeztu dira. Euskarazko ikus-entzunezko laburren ekoizpena Euskal Herrian aurkezten dituzten ekimenak urriak dira egun eta Film Laburren Zirkuitua arlo honetan ari diren sortzaile euskaldunentzat erreferente garrantzitsuan bihurtu da.

Aurreko urtearekin alderatuz, emanaldi gutxiago eskaini dira edizio honetan. Guztira 24 elkartek 28 emanaldi antolatu dituzte eta jasotako balorazioak onak izan dira.



Irakurri, Gozatu eta Oparitu

Irakurzaletasuna eta euskarazko liburuen irakurketa sustatzea helburu du "Irakurri, gozatu eta oparitu" programak. Elkarlanean jartzen ditu horretarako, herriko euskara elkarteak, liburutegi publikoak eta liburu dendak.

Guztira 15 euskara elkarte jarri dute martxan egitasmoa 2010 urtean. Aurreko urtean baino herri gutxiagotan burutu den arren, nabarmen hobetu dira parte hartze datuak. Izan ere, jasotako datuen arabera, liburutegiaren %55ean aurreko urteko mailegu kopuruak hobetu egin dira eta jasotako irakurleen fitxak %31an hazi da; salmenta kopurua, berriz, %12an.

<http://www.topagunea.org/irakurri/>



Mintegiak

2009an Bilbon egindako EskuEra jardunaldietan kulturgintza parte hartzailearen gaineko gogoeta abiatu zen. Bertan, besteak beste, aipagarria izan zen Gotzon Barandiaran eta Igor Elortzak eskainitako "Eman, jaso eta zabal zazu; kulturgintzaz" ponentzia. Gaiari jarraipena ematea erabaki zuen kulturgintza batzordeak eta 2010ean mintegiak antolatzea erabaki zuen. Bi mintegi burutu dira (Bilbon eta Billabonan) eta hirugarren saioa Gasteizen antolatutako Arabako Euskaldunon Elkarten jardunaldietan barneratu da. Mintegien edukiei dagokienez, bi atal izan dute; batetik, Gotzon Barandiaranek eta Igor Elortzak bere ekarpenean sakondu dute eta, bestetik, zenbait euskara elkartetako ordezkariak, beraien kultur jardueraren esperientzien azalpena egin dute.

Mintegietan 20 euskara elkartetako ordezkariak parte hartu dute eta Arabako jardunaldietan 60 bat lagunek parte hartu dute. Saioen balorazioak onak izan dira eta atal biek (ponentzia eta esperientzia arrakastatsuak) izan dute harrera ona.


Udagoieneko Ostera

Hamaikagarren aldiz antolatu da 2010 urtean Bizkaian formatu handiko kultur emanaldien Udagoieneko Ostera zirkuitua. Aurrekontu murrizketa izan du aurten eta sei emanaldi antolatu dira beste hainbat antzokitan. Hala ere, emanaldi gutxiago izan arren, ikus-entzuleen kopurua proportzioan %17,5 hazi da.

Udazkenetan Bizkaiko kultur agendaren ohiko hitzordua da Udagoieneko Ostera, formatu txikian antolatzen diren gainontzeko zirkuituak osatzen dituen zirkuitua.



Hedabideak



Tokikom

Aurreko urtean abiatutako bidean, Tokikom markaren bueltan bildu dira Topagunean bazkideguta dauden elkarteek kudeatzen dituzten toki hedabide gehienak. Marka huts izatetik haruntzagoko helburua du Tokikom-ek eta horrela, urtean zehar ekimen ezberdinak izan dira. Batetik, 2009 urtean sortutako agregatzaileak sarean dauden hedabideen berri jaso du urte osoan zehar. Tokian tokiko berrien erreferentzia izan nahi du <http://www.tokikom.com/> helbideak eta egun 18 hedabide elektronikoren informazioa jasotzen du.

Bestetik, hedabideen edukiak konpartitzeko eta trukatzeko gunea ere antolatu da 2010 urtean. Tokikom-en beste helburuetako bat baliabideen optimizazioa da eta beste hedabideentzat baliagarri izan daitekeen materiala eskuragarri jartzeko modua landu da. Erabilpena zabaltzea izango da hurrengo urteko erronka.

Azkenik, publizitatearen gaiari heldu zaio 2010 urtean, nahiz eta oraindik ez den eskaintza bateratua antolatzea lortu. Lehen lanketa egin da eta hurrengo urterako publizitate eskaintza bateratua Tokikom-en baitan antolatzea jarri da lehentasun modura.

<http://www.tokikom.com/>

Irakurle azterketak

Aztiker enpresaren bidez laugarren urtez burutu dira tokiko zenbait hedabideren irakurle azterketak. 2009 urteko Eusko Jaurlaritzaren HEHOBA diru-laguntza deialdia baliatuz Durangaldeko Anboto, Arratiako Begitu eta Urretxu-Zumarragako Otamotz aldizkarien irakurleen azterketak 2010 urtean bukatu dira, urte honetan bertan aurkeztu direlarik hauen emaitzak ere. Aurreko urteetan bezala, emaitza onak eman dituzte burututako hiru azterketek. 2010eko HEHOBAko deialdiaren baitan beste bi azterketa abiatu dira eta hauen emaitzak 2011ko lehen hilabeteetan jasoko dira. Zumaiaiko Baleike aldizkaria (paperekoa eta internetekoa) eta Sakanako Bierrik elkartearen hiru hedabideak (Guaixe aldizkaria, Guaixe orainkaria eta Beleixe irratia) aztertzen ari dira aurtengo azterketetan.

Hortaz gain, HEHOBA deialdiaren baitan beste bi egitasmo ere kudeatu dira aurrean: Pil-Pilean eta Euskal Birusa elkartearen egitasmoak.

Lau urtetan pilotutako informazioarekin eta datuekin irakurketa orokorragoak egiteko modua izango da aurki.



Lan-poltsa eta praktikak

Tokiko hedabideen lan-poltsak martxan jarraitzen du. Bazkideen aldetik kontsultak egon dira eta kontsulta horietatik eratorritako kontratazioak egon dira.

EHU eta MUREkin hartutako harremanaren ondorioz, praktikari eta bekadunak hedabideetara bideratzeko bitartekaritza lana egin da; informazioa zabaltzeko ardura hartu du Topaguneak.

<http://www.tokikom.com/lanpoltsa/>


Bitartekaritza eta sektoreko hausnarketak

Euskarazko hedabideen sektoreko beste eragileekin harremana izan da urtean zehar. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako hausnarketarako mahaian parte hartu dute federazioaren eta zenbait bazkideren ordezkariak. Hortaz gain, gainontzeko euskarazko hedabideekin batera dinamika publikoa abiatu da gizarteari eta arduradun politikoei sektorearen eskarien berri emateko. Topaguneak ordezkari lana egin du beste talde batzuekin batera.

Tokiko

Topagunea euskarazko toki telebisten Tokiko elkarte kide da elkartearen sorreratik. Zuzendaritza Batzordean parte hartzen du Topaguneko ordezkari batek eta administrazio lanak Federaziotik bideratzen dira. Tokiko.tv webgunea egonkortuta dago eta zenbait tokiko telebisten programazioa jasotzen du. Telebistek sortutako materiala zabaltzeko funtzioa betetzen du.

<http://www.tokiko.tv/>



Mintzapraktika egitasmoak

Azken sei urteetan gehien hazi den egitasmo mota da mintzapraktika egitasmoena. Duela zenbait urte Topaguneak arlo hau indartzeko apustua egin zuen eta egitasmo kopurua bezala, partaideena ere biderkatu egin da urteotan. Egun 4.000 partaide inguru daude Euskal Herrian erakunde ezberdinek kudeatzen dituzten egitasmo hauetan.

Duela sei urte Bidaide egitasmoa sortu zuen Topaguneak eta hazkunde honetan eragina izan du Topaguneak plan horren baitan egindako lanak.

<http://www.mintzapraktika.org/>


Ikerketa

Topaguneak 2009 urtean Eusko Jaurlaritzari proposatutako ikerketa bukatu da 2010 urteko lehen hilabeteetan. Aztikerrek egindako ikerketan mintzapraktika egitasmoen partaideekin egitasmoon eraginkortasuna aztertu nahi izan da. Horrela, ezagutzan, erabileran eta motibazioan mintzapraktikak duen eragina ezagutu nahi izan da. Ikerketa kuantitatiboa mintzapraktika egitasmoetako partaide guztiei (unibertso osoari) zuzendu zaie eta 1.800 partaideren erantzunak jaso dia. Era berean, ikerketa kualitatiboa ere egin da talde dinamika, elkarrizketa sakon eta 2009ko Mintza Egunean Gasteizen egindako behaketen bidez. Emaizak mintzapraktika egitasmoak indartzeko baliagarriak izan dira eta publikoki aurkeztu dira.

Emaizen laburpena: <http://ttiki.com/26466>
Ikerketaren emaitza txostena: <http://ttiki.com/26467>

Aldaerak

- Aurten gazteentzako aldaera sortzeko lanari eman zaio lehentasuna atal honetan. Zenbait egitasmotako arduradunen aldetik jasotako iritzi eta oharrekin aldaera irudikatzeke lana egin da, egitasmoa idatziz. Hurrengo urratsa egitasmo pilotua martxan jartzea izango da.
- Gurasoentzako mintzapraktika egitasmoak (Guraso laguna) zabaltzen jarraitzen du. Azken urtean beste gune garrantzitsu batera eman du saltoa, Gasteizera. Zenbait eskualdetan ondo finkatuta dagoen egitasmoa da, familia transmisioa lantzeko aukera eskaintzen duena.
- Mintzapraktika.org webgunean e-mintzapraktika egiteko aukera eskaini da beste urte batez.



Nahi dugu! Mintzalaguna, euskaldunon mundua

14 herri eta eskualdetan izen-emate kanpaina bateratua antolatu da hirugarren urtez. Helburu bikoitza du kanpainak: mintzapraktika egitasmoak gizarteratzea batetik, eta tokian tokiko mintzapraktika egitasmoetan parte hartzeko gonbitea egitea, bestetik.

Mintza eguna

Gipuzkoan egin da bigarreniz Mintza eguna, Arrasaten. Bosgarren edizio honetan Euskal Herri osoko 250 mintzalagun biltzea lortu da, aurreko urteetako kopuruak mantenduz. Udaren atarian mintzapraktika egitasmoetan dabiltzan lagunentzat bilgunea antolatzea da Mintza Egunaren helburua, txoko ezberdinetako lagunak biltzea.

Lankidetzaren hitzarmenak

Mintzapraktika egitasmoen inguruan hiru lankidetzaren garrantzitsu izan ditu azken urteotan Topaguneak: Batetik, Topaguneak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin mintzapraktika egitasmoen sustapenerako hitzarmena sinatu du bosgarren urtez. Lankidetzaren hitzarmen honi esker landu ahal izan dira urtean zehar arlo honetan egindako sustapen lana eta hainbat egitasmo.


Bestetik, AEKrekin ere lankidetzaren jarraitua izan da azken urteotan. Mintzapraktika egitasmo gehienek kudeaketa euskara elkarteek eta AEKko euskaltegiek egiten dute eta bi erakundeon arteko harremana hitzarmen batean jasotzen zen 2008 urtean, nahiz eta harremana lehenagotik zetorren.

Azkenik, 2009 urtean gauzatu zen aurretik zetorren beste harreman bat ere, IKAKo euskaltegiekin hain zuzen ere.

Prestakuntza eta kudeaketa

Mintzapraktikako teknikari berriei zuzendutako bi harrera saio antolatu dira.

Hortaz gain, Topaguneak egun bi egitasmo kudeatzen ditu zuzenean: Iruñerriko Mintzakide zazpigarren urtez eta Baztaneko egitasmoa bigarren urtez. Ekainerarte kudeatutako Asteasuko Mintzalagun egitasmoa bertan behera gelditu da.




Sentsibilizazioa

Auzoko egitasmoa

2010a Auzoko egitasmoaren zabalkundeko urtea izan da. Aurreko urteetan diseinatutako egitasmoa, eremu euskaldunetara etorri berriak direnei harrera egiteko egitasmoa, azken urtean frogatu ahal izan da behar bezala, horretarako jasotako finantzazioari esker. Egitasmoaren sorreran Topagunea eta UEMAK parte hartu zuten eta 2010ean martxan egon diren sei egitasmo pilotuetan irizpide ezberdinak jarraitu dira. Batetik, UEMAKo kide diren Berriatua, Zestoa eta Bergaran martxan egon da egitasmoa eta, bestetik, Donostiako Antigua auzoa, Zeanuri eta Agurain ere izan dira egitasmoarentzako laborategiak. Herriz-herriz balorazio ezberdinak egin diren arren, oro har egitasmo baliagarri eta interesgarria dela frogatu da. Egitasmo hauen gaineko ikerketa aplikatua egin da martxan egon den hilabeteetan.

Egitasmo pilotuez gain, beste lan batzuk ere burutu dira aurrean. Aipatu beharra dago jadanik 30 hizkuntzatan daudela Auzokoren hiztegiak (komunikaziorako oinarrikoak diren 300 hitz jasotzen dituzten poltsikoko hiztegiak). Hortaz gain, hainbat aurkezpen burutu dira.

Sustapen lanen artean aipatutako jardunaldien antolaketa ere egin da Auzoko egitasmoari lotuta.





Zergatik ez? tailerra

2009 urtean ekindako lanaren lehen fruituak jaso dira aurtengo "Zergatik ez?" tailerrarekin. Norbanakoaren hizkuntza praktiketan eragiteko helburuarekin Kataluniako Tallers per la llengua erakundeko kideak ezagutu eta beraiek eskaintzen duten Taller de Foment dels Usos Interpersonals en Llengua Catalana ikastaroa moldatzeko aukera izan zuen Topagunea eta aurtengo tailer horren hainbat saio eskaini ditu bai federazioko bazkideentzat eta baita beste eragile batzuentzat ere. Guztira 10 tailer eskaini dira eta jasotako balorazioak oso onak izan dira.

Elkarteak euskalduntzea

Ekainaren 22an aurkeztu zen Bilbon "Elkarteetan eragiten hitzarmengintzaren bidez. Entitateak euskalduntzeko metodologiaren garapena" eskuliburua.



Zerbitzuak

Administrazio zerbitzuak

Hiru zerbitzu dira Topagunearen administrazio arlotik bazkideentzat eskaintzen direnak: diru-laguntzen kudeaketa, aholkularitza zerbitzua eta aseguruaren kudeaketa bateratua. Hiru zerbitzuok urtean zehar mantendu egin dira eta egonkortuta daude.

Aseguruaren kudeaketa


Istripu aseguruak eta elkartearen erantzukizun aseguruak kontratatzeko bitartekari lana egiten da. Taldean aurkeztuz baldintza hobekak bilatzen ditu federazioak.

Diru-laguntzak

Deialdi ezberdinetan egiten dira diru-laguntza eskaeren gestioak: Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietan eta Eusko Jaurlaritzan bideratzen dira eskari guztiak eta nagusiki hedabide, euskalgintza eta teknologia berrien deialdietan. Bestelakoan, aholkularitza ere eskaintzen da bestelako deialdietan aurkeztu nahi dituztenentzat.

Aholkularitza

Aholkularitza zerbitzuan elkartearen aholkularitza laborala eta fiskala eskaintzen dira.




Kultur Zerbitzuak

Kultur Kabia sozietatea 2006.urtearen bukaeran eratu zen legalki, ondoko xedearekin: euskararen normalizazioan eraginez eta eragiteko aisialdiko zerbitzuak ematea. Sorreratik izandako bilakaeran kultur eta aisialdiko zerbitzuak ematera zabaldu du bere jarduna eta Topagunearen egitasmoak kudeatzetik hainbat kanpo-bezerori zerbitzuak eskaintzera pasa da. 2010ean eskainitako zerbitzu nagusiak kultur zerbitzuen kudeaketa eta gazte zein nerabeei eskainitako egitasmoak izan dira.

. Kultur zerbitzuak: Topagunearen kultur egitasmo nagusiak kudeatzeaz gain UEMArentzat eta hainbat udalentzako zerbitzuak landu ditu. Kultur zerbitzu hauek haur eta helduei zuzendutakoak izan dira.

. Gazte eta nerabeei zuzendutako programak: Udal eta mankomunitateak izan dira zerbitzu hauen hartzaile nagusiak.



harrapa
zank

bilborock-en
www.harrapazank.com


@luentia ere zure zain!

Sarrerak salmenta: bilborock-en eta bilborock-en bitarteko kutsatzen.

<p>dantza, musika eta antzerki topaketak</p>  <p style="font-size: 0.8em;">zuzeneko elkarrizketak eta masterclass-ak</p> <p style="font-size: 0.8em;">Martxoaren 18an eta 19an, 18:30ean SARRERA DEBALDE</p>	<p>lehiaketak eszenatoki gainean</p> <p style="font-size: 1.2em; font-weight: bold;">distira zank</p>  <p style="font-size: 1.2em; font-weight: bold;">dantza zank</p> <p style="font-size: 0.8em;">Finalak apirilaren 2an eta 9an, 19:30ean SARRERA DEBALDE</p>	<p style="font-size: 1.5em; font-weight: bold;">jo zank</p> <p style="font-size: 0.8em;">kontzertua</p>  <p style="font-size: 0.8em;">apirilaren 8an ostirala, 20:00etan SARRERA 6 €</p>
--	--	---

Babesleak eta laguntzaileak

20010ean ondoko erakundeek babestu dituzte ekonomikoki Federazioaren jarduera eta egitasmoak:



Alecop Koop. Elk.
Arabako Foru Aldundia
Arrasateko udala
Auzo Lagun Koop. Elk.
BBK Fundazioa
Bizkaiko Foru Aldundia
CAN
Domusa Calefacción Koop. Elk.
Emun Koop. Elk.
Eroski Koop. Elk.
Euskadiko Kutxa
Eusko Jaurlaritzza
Gasteizko udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Hobetuz
Ikerlan Koop. Elk.
Inem
Kutxa Fundazioa
Maier Koop. Elk.
Orona Koop. Elk.
Udalbide
Ulma Koop. Elk.

Beste babesle batzuk ere izan ditu Federazioak bere egitasmoetan:

Berria, Deia, Diario de Noticias, EITB, Elkar, Erein, Ermuako udala, Euskalerrria Irratia, Galdakaoko udala, Gara, Gertu inprimategia, Ibaizabal, Kukuxumuxu, Lekeitioko udala, Mungiako udala, Muskizko udala, Onda Vasca, Pamiela, Susa, Zallako udala

Era, berean, hainbat kolaboratzaile, laguntzaile eta lagun izan ditu Topaguneak urtean zehar bere egitasmoak gauzatu ahal izateko.





topagunea
euskara elkarten
federazioa

**Arlozabal 8 bis, 1. C. 48220 Abadiño, Bizkaia.
T: 94 621 57 80 / F: 94 681 47 32**

www.topagunea.org

